



JAIETAKO EGITARAUA

ABUZTUAK 13

- **18:00** Desenkajonamendua eta entzierrilloa.

ABUZTUAK 14 JAIEN HASIERA

- **18:00** San Roke jaien hasiera. Kanpai-errepikarekin, San Rokeri zapi gorria jarriz eta udaletxeko balkoitik txapligua jaurtiz emango zaie hasiera San Roke festei.
- **Jarraian**, kalejira, musika bandarekin, txistulariekin, Lizarrako gaiteroekin, erraldoiekin eta buruhandiekin.
- **19:15** Udalbatzaren kalejira. Udaletxetik Plaza Zaharrera, Kalez-kale txistulari taldeak *Alkate soinua* jotzen duen bitartean.
- **19:30** Erreberentzia eta ezpata dantza, Gure-Kai dantza taldearen eskutik, Andra Mari elizan.
- **Jarraian**, meza nagusia, Andra Mari elizan. Tarteetan, Hilarion Eslavaren *Salbea* abestuko du Aitzuri Abesbatzak.
- **22:30** Danborrada, Ozio-Bide elkartearen eskutik.
- **01:00** Erromeria: Olgetan taldea, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 15 UMEEN EGUNA

- **09:30** Diana, Lizarrako gaiteroekin.

- **10:00** Zezen txikien entzierroa, 8-16 urte bitartekoentzat, Eroski paretik zezen-plazara.
- **Jarraian**, enbolatuak, 8-16 urte bitartekoentzat.
- **10:30** Artisau azoka, pasealeku estalian eta Gudarien Plazan.
- **11:00-15:00** Adin askotariko umeentzat puzgarriak eta ur jolasak. Simon Berasaluze plazan —uretako puzgarrietarako, bainujantzia eramatea gomendatzen da—.
- **12:30** Adin guztientzako ikuskizuna: *Mikra* (Berdinki Zirku Konpainia), Aldats pilotalekuan.
- **13:00** 2025eko abuztuaren 1etik 2026ko uztailaren 31ra arte jaiotako umeei zapi gorria jarriko die alkateak, udalbatza aretoan.
- **14:30** Bazkaria umeentzat, gaztetxoentzat eta familientzat. Zumardiko karpan; catering zerbitzua egongo da. Txartelak, Turismo Bulegoan salgai.
- **17:30** Dantzarien, danbor-joleen, pandero-joleen eta erraldoi txikien kalejira, banda gazteak, dultzaineroek eta txistulariek lagunduta, Luzaro eskolatik. Plaza Zaharrean dantzariak dantza egingo diote San Roke Txikiari.
- **18:00** Plazako jaialdia: danborrada, erraldoi txikien dantza eta dantzarien ekitaldia.
- **20:00** Erromeria: Mugi Panderoa, Plaza Zaharrean.
- **23:00-02:00** Sexu Bizi puntu morea, zumardi parean.
- **23:00** Kontzertuak: Silitia eta Neomak, zumardiko karpan.



Urtero lege, abuztuaren 14an lehertuko da festa Deban, 18:00etan. ANDER SALEGI

ABUZTUAK 16 SAN ROKE EGUNA

- **07:00** Diana, musika banda eta Lizarrako gaiteroekin.
- **08:00** Entzierroa, 18 urtetik gorakoentzat. Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).
- **Ondoren**, enbolatuak, 16 urtetik gorakoentzat.
- **09:30** Herritarren agurra San Rokeri, Plaza Zaharrean. Ezpata dantza, Gure-Kai dantza taldearen eskutik.
- **Jarraian**, prozesioa, San Roke ermitara.
- **10:30** Meza nagusia, San Roke ermitan.
- **12:30** Aurreksua, Plaza Zaharrean, Gure-Kai dantza taldearen eskutik.
- **17:00** Jokai jolasak umeentzat, Simon Berasaluze plazan.
- **18:00** Zezenketa, Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca). Toreatzaileak: Manuel Leon —Badajozko zezen-eskola— eta David Cob —Palentziako zezen-eskola—. Ordezkoa: Ruben Nuñez —Salamanca zezen-eskola—.
- **Ondoren**, enbolatuak, 16 urtetik gorakoentzat.
- **Jarraian**, kalejira, musika bandarekin, Lizarrako gaiteroekin eta erraldoi eta buruhandiekin.
- **19:00** Bertso saioa, zumardiko karpan.
- **20:00** Erromeria: Bide batez, Plaza Zaharrean.
- **23:00** Su-festak, hondartzan, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.
- **23:30** Mariatxiak: Mariachi Imperial de Guanajuato, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 17 MARINEL EGUNA

- **07:30** Kardantxuloak kantuan, Plaza Zaharretik.
- **10:30** Jorrai dantza, Gure-Kai dantza taldearen eta Kalez-kale txistulari taldearen eskutik.
- **11:00** Txanbezpel, kalerik kale.
- **15:00** Herri bazkaria, Aldats pilotalekuan.
- **17:30** Kalejira, Lizarrako gaiteroekin eta Oria txarangarekin.
- **18:00** Enbolatuekin entzierroa, 16 urtetik gorakoentzat, Hermanos Arrizabalaga ganadutegiko zezenekin.
- **Ondoren**, gazte kuadrillen jokoak, zezen-plazan, Oria txarangak alaiturik.
- **Jokoen ondoren**, Hamarru elektrotxaranga, kalez kale.
- **23:00** Su-festak, hondartzan, Pirotecnia Vulcanoren eskutik.
- **00:00** Larrain dantza, Plaza Zaharrean.
- **00:30** Kontzertuak: Skaregekasko eta Malakias, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 18 JAIEN AMAIERA

- **07:00** Diana, musika banda eta Lizarrako gaiteroekin.
- **08:00**. Entzierroa, 18 urtetik gorakoentzat. Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).
- **Ondoren**, enbolatuak, 16 urtetik gorakoentzat.
- **11:00** Hamaiketakoa adinekoentzat, Arbil elkartearen.
- **11:30** Herri kirolak, Simon Berasaluze plazan. Aizkoran: Iker Vicente —Euskal Herriko txapelduna—. Harri-jasotzen: Unax Iruretagoiena *Izeta*.
- **12:30** Errekortariak, plazan.

- **Ondoren**, enbolatuak, 16 urtetik beherakoentzat.
- **13:00** Herri kirolak, Plaza Zaharrean. Aizkoran: Eneko Saralegi eta Ugaitz Mugerza. Harri-jasotzen: Goenatxo III.a.
- **13:30** Herri kirolak, Arakistain plazan. Harri-jasotzen: Lierni Osa eta Maddi Gesalaga.
- **13:30** Ustekabe txaranga, kaleetan zehar.
- **18:00** Umeentzat ikuskizuna: **Sardina freskue**, Simon Berasaluze plazan.
- **18:00** Zezenketa, La Ventana del Puerto ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca). Toreatzaileak: Noel Garcia —Salamanca zezen-eskola— eta Ekaitz Moreno —Nafarroako zezen-eskola—. Ordezkoa: Ruben Nuñez —Salamanca zezen-eskola—.
- **Jarraian**, enbolatuak, 16 urtetik gorakoentzat.
- **Ondoren**, erraldoien agurra, Plaza Zaharrean, Debako Bandaren eta Lizarrako gaiteroen laguntzarekin.
- **23:30** Danborrada, Ozio-Bide elkartearen eskutik, Plaza Zaharrean.
- **Ondoren**, jaien amaiera. Zapi gorria erantziko zaio San Rokeri.



Gure Kaiko dantzariak eta jende andana, iaz, San Roke ermitan. ANDER SALEGI



Herri kirolen erakustaldia, iaz. ANDER SALEGI